



Site internet

Le nouveau site internet de la commune sera en ligne début 2023. Il se veut plus convivial, éco responsable et interactif, avec notamment la possibilité de signaler des problèmes sur la voirie, l'éclairage public ou les espaces verts. Il sera également accessible aux mal voyants et mal entendants.

Une rubrique « économie » permettra aux artisans, producteurs, commerçants... de laisser leurs coordonnées. Les personnes intéressées peuvent s'inscrire auprès du secrétariat de la mairie grâce à un formulaire qui sera mis en place.

Un blog spécifique aux activités périscolaires (informations, photos et reportages) destiné uniquement aux familles des enfants de l'école y sera rattaché.

A noter que ce nouveau site est totalement financé par le plan France Relance.

Cimetière

La commune souhaite finir la régularisation des tombes en terrain commun du cimetière qui a débuté il y a quelques années.

Des panneaux ont été placés fin octobre sur quelques emplacements non encore régularisés. En l'absence de manifestation d'ici fin 2023, les tombes seront reprises et pourront être

Webgunea

Herriaren webgune berria 2023 hastapenean izanen da linean. Erabil errexagoa, ekoarduratsu eta elkarreragilea izan nahi du eta aukera emanen du bideetan, argiteria publikoan edota berdeguneetan atzeman arazo berri emateko. Ikusmen edota entzumen murrizta dutenek ere erabiltzen ahalko dute.

«Ekonomia» atal batek emanen die eskulangileei, ekoizleei, merkatariei eta abar beren deitura-helbideak emateko lekua. Interesa dutenek Herriko Etxeko idazkaritzan eman dezakete izena honi inprimakiaren bitartez egiten ahalko da. Eskolaldi inguruko jardueretaz ari den blog berezia (informazioak, argazkiak eta erreportaiak...) erantsia izanen ziaie eskolako haurren senideentzat bakarrik.

Jakitekoa da, Webgune berri hau *France Relance* planak diruztatzen duela osoki

Hilerria

Herriak bururatu nahi du orain dela zenbait urte hasi genuen hilerriko ororen lurreko hilobien egokitzea.

Urri hondarrean, taulak ezarri ditugu oraindik erregularizatuak izan ez diren leku batzuetan. Hemendik 2023ko hondarra bitartean nehork deus erran ezean, hilobiak hartuko ditugu eta

attribuées à des personnes qui souhaitent prendre des concessions au cimetière.

Office de tourisme

Activité pleine cet été pour l'office de tourisme tenu par Valérie et Anaïs, avec un nombre plus important de visiteurs en 2022 par rapport à 2021, Ainhoa, en sachant garder ce qui fait ses valeurs, reste néanmoins une des communes les plus visitées de l'agglomération pays basque. La période hivernale permettra de mettre à jour la signalétique des randonnées « chapelle » et « Gr et Nivelle » ainsi que le chemin des pottoks bleus d'Ainhoa à la frontière.

Formation secourisme PSC1

Une formation aux premiers gestes de secours aux personnes, se déroulera les samedi 21 janvier et mercredi 25 janvier 2023, salle Elkartetxea. On peut s'inscrire en mairie (nombre de personnes limité à 10 personnes). La formation est en partie prise en charge par la mairie (35€), avec une participation à charge de 20 €

Ateliers numériques

Face aux succès des derniers réalisés, de nouveaux ateliers numériques devraient normalement avoir lieu à la mairie durant le premier semestre 2023.

Ecole

La salle de restauration de l'école fait peau neuve !
Les élèves demi-pensionnaires ont découvert à la rentrée des congés de Toussaint, un nouveau mobilier plus adapté aux élèves, ils peuvent se regrouper par 4 à table et échanger ainsi de façon plus conviviale entre eux.
De la même manière, la mairie a procédé au renouvellement de la vaisselle.
Des petites améliorations qui font suite aux aménagements réalisés l'an dernier dans la salle de restauration scolaire.

hilobi-kontzesioak hartu nahi dituztenei ematen ahalko dizkiegu.

Turismo bulegoa

Aktibitate betean aritu da uda honetan turismo bulegoa, Valérie eta Anaïs gidari. 2022an 2021ean baino bisitari gehiago izan dira Ainhoan; bere baloreak atxikitzen jakinik ere, Euskal Elkargoko herri bisitatuenetariko bat dugu Ainhoa. Negualdiak emanen digu «Kapera» eta «GR eta Urdazuri» ibilbideetako bai eta Ainhoatik mugarainoko pottoka urdinen bideko seinalea eguneratzeko aukera.

PSC1 sokorri formakuntza

Jendeen sokorritzeko lehen jestuak ikasteko formakuntza egingen da 2023ko urtarrileko 21ean larunbatarekin eta 25ean asteazkenarekin, Elkartetxean. Herriko Etxean eman dezakezu izena (gehienezko jende kopurua 10 pertsona). Formakuntzaren gastuaren parte bat Herriko Etxeak ordainduko du (35 €), eta nork bakoitzak 20 € beharko ditu ordaindu.

Tailer numerikoak

Egin diren halako azkeneko tailerren arrakasta handia ikusirik, tailer gehiago egingen dira, hein segur, Herriko Etxean 2023ko lehen seihilekoan.

Eskola

Eskolako jantokia berritua izan da!
Jantokian bazkaltzen duten ikasleek hobeki egokitzen zaizkien altzari berriak atzeman dituzte Omasainduko oporretatik itzultzean; mahai bakoitzean laurazka bil daitezke eta beren artean giro atseginagoan mintza litezke orain.
Gisa berean, Herriko Etxeak baxera berria eman du.
Hobekuntza ttipi horiek iaz jantoki aretoan egin antolaketa berrien jarraipena dira.

Défi énergie-eau Pays Basque

Les CPIE Pays Basque et CPIE Littoral basque (Centres Permanents d'Initiatives pour l'Environnement) - avec le soutien de la Communauté d'Agglomération Pays Basque, et dans le cadre du [Plan Climat PCAET](#), - vont animer la 7ème édition du Défi Déclics énergie-eau Pays Basque.

Le défi aura lieu du 1er décembre 2022 au 1er avril 2023 et est ouvert à tous les habitants du Pays Basque.

Le défi est un dispositif de sensibilisation et d'actions en matière d'économies d'énergie et d'eau, où chaque famille s'engage à **réduire ses consommations par la mise en place d'écogestes simples.**

C'est un moyen de **sensibiliser les citoyens et de les faire participer de manière ludique et pédagogique** à la transition écologique et énergétique du territoire.

Voir l'information sur le site internet du CPIE Littoral basque, par téléphone au 05 59 37 47 20 ou par mail defifamilles.paysbasque@cpiepaysbasque.fr

Euskal Herriko energia-ura erronka

IEZI Ipar Euskal Herria eta IEZI Euskal Itsabazterra elkarteek (Ingurumenaren aldeko Ekimenerako Zentro Iraunkorrak) - Euskal Hirigune Elkargoaren sustenguekin eta [Plan Climat LKAEP-PCAET Klima Planaren barnean](#), - animatuko dute Ipar Euskal Herriko Energia-Ura Aldaketa Desafioaren 7. aldia.

Desafio hori 2022ko abenduaren lehenetik 2023ko apirilaren lehena bitarte egingen da eta Ipar Euskal Herriko biztanle guzietan izanen da zabalik.

Desafio hori energia eta ur ekonomien alde ohartarazteko eta jarduerak egiteko baliabide bat da, zeinean familia bakoitza engaiatzen baita bere kontsumoak murriztera ekokeinu simple batzuen bidez.

Lurraldeko ekologia eta energia trantsizioaz herritarrak ohartarazteko eta molde ludiko eta V pedagogiko batez parte hartzera bultzatzeko bide bat da

Informazioa ikusteko IEZI Euskal itsabazterren webgunera jo ezazu edo 05 59 37 47 20 telefonora dei egizu edo defifamilles.paysbasque@cpiepaysbasque.fr e-helbidera idatz ezazu.

Aides pour l'amélioration de l'habitat Permanence à Ainhoa mardi 13 décembre

L'action publique sur le parc privé existant constitue un axe structurant de la politique locale de l'habitat de la Communauté d'Agglomération Pays Basque.

Le PIG (Programme d'Intérêt Général) pays basque mis en œuvre sur les 158 communes depuis 2018 connaît un vif succès auprès des habitants du Pays Basque. Il a permis la réhabilitation de 1 242 logements occupés par leur propriétaire et la remise sur le marché de plus de 67 logements vacants qui viennent ainsi étoffer l'offre de logements conventionnés du territoire.

Fort de cette expérience et désireuse de poursuivre l'accompagnement des propriétaires de logements privés en proposant des aides financières mais aussi un soutien technique et administratif, la CAPB reconduit le dispositif pour

Bizilekua hobetzeko laguntzak abenduaren 13an Ainhoan permanentzia bat

Dauden eraikin pribatuen gaineko jardun publikoa ardatz egituratzailea zaio Euskal Hirigune Elkargoaren bizilekuen gaineko tokiko politikari.

Euskal OIP-PIG (Ororen Interesako Programa) programa 2018an abiatu zen 158 herrietan eta arrakasta handikoa da euskal herritarren artean. Jabeek beraiek erabiltzen dituzten 1242 bizitegi berritzeko aukera eman du, bai eta hutsik ziren 67 bizitegi berriz merkatura eman eta lurraldean den hitzarmenpeko bizitegien eskaintza joritzeko aukera ere.

Esperientzia horren ondorioz eta bizitegi pribatuen jabeak laguntzen jarraitu nahiz, hala diruzko laguntzen bitartez nola sustengu tekniko eta administraziozkoaren bitartez, Euskal Hirigune Elkargoak beste bi urtetarako

une durée de deux ans.

1 / Vous désirez engager des travaux dans votre domicile ? (Rénovation énergétique, adaptation d'une salle de bain, réhabilitation complète du logement). Vous pouvez bénéficier d'une aide financière, sous certaines conditions (ressources des personnes qui occupent le logement, types de travaux).

2 / Vous êtes propriétaire d'un logement que vous louez ou que vous souhaitez remettre sur le marché locatif (logement vacant) ? Vous pouvez également solliciter des aides financières.

SOLIHA est chargé par la Communauté d'Agglomération Pays Basque d'informer et d'aider les propriétaires à constituer les dossiers de demande de subventions. Vous pouvez aussi rencontrer SOLIHA lors de permanences organisées sur l'ensemble du territoire de la Communauté Pays Basque

Une permanence de SOLIHA sera mise en place à la mairie d'Ainhoa le mardi 13 décembre 2022 de 17h30 à 19h (renseignements auprès de la mairie)

Votre projet fera l'objet d'une étude technique, réglementaire et financière (quelles aides ? comment en bénéficier ? financement du reste à charge, etc...).

Plus de 1300 propriétaires ont déjà bénéficié des aides du PIG. Alors pourquoi pas vous ? Pour toutes questions relatives aux aides à l'amélioration de l'habitat, contactez le 05 59 46 31 50 (appel gratuit) ou écrivez à habitat.paysbasque@solih.fr, ou renseignez-vous auprès de la mairie d'Ainhoa.

Permanences élus à la mairie

A partir du 1^{er} janvier 2023 les permanences des élus auront lieu le 1^{er} samedi du mois. Ces permanences seront l'occasion pour les habitants de rencontrer les élus, d'échanger sur leurs préoccupations quotidiennes, présenter leurs doléances et autres questionnements que les élus s'engagent à traiter.

luzatu du baliabidea.

1 / Zure etxean obrak egin nahi dituzu? (Berritze energetikoa, bainugela baten egokitzea, bizitegi osoaren berritzea) Diruzko laguntza ukan zenezake, baldintza zenbait betez gero (bizitegian bizi direnen diru-sartze maila, obra motak).

2 / Alokatzan duzun edo alokatu nahi zenukeen bizitegi baten (bizitegi hutsa) jabe zara? Zuk ere eska ditzakezu diruzko laguntzak.

SOLIHA da Euskal Hirigune Elkargoaren aginduz dirulaguntza dosierak osatzeko informazioa eta laguntza emateko kargua duena. Euskal Hirigune Elkargoaren lurralde osoan antolatzen diren jendeentzako informazio saioetan atzemanen duzue SOLIHA

SOLIHAren jendeentzako informazio saioa izanen da Ainhoako herriko etxean, 2022ko abenduaren 13an, asteartearekin, 17:30etatik 19:00etara (argibideak Herriko Etxean)

Zure proiektuaren azterketa tekniko, araudizko eta diruzkoa egingen da (zein laguntza? Nola eskuratu? Nola diruztatu norbere karguko gastua? etab...).

1300 jabe baino gehiagok OIP-PIG programaren laguntza ukan dute. Zergatik ez zuk? Bizilekua hobetzeko laguntzei buruzko edozein galderendako, zenbaki honetara dei ezazu: 05 59 46 31 50 (deia urrik) edo helbide elektronikoa honetara idatz ezazu:

habitat.paysbasque@solih.fr edo Ainhoako Herriko Etxean galdegin itzazu argibideak.

Hautetsien jende-hartzea Herriko Etxean

2023ko urtarrilaren lehenetik goiti, hautetsien jende-hartzeak hilabeteko lehen larunbatean iraganen dira. Jende-hartze horiek hautetsiekin izan eta haiekin egunero dituzten kezketaz mintzatzeko aukera ematen diete herritarrei, kexuak azaltzeko eta beste galdeketak egiteko, hautetsiek lan ditzaten, horretara engaiatzen baitira

Marché de Noël

L'association Elorri regroupant les producteurs et artisans d'Ainhoa organise son marché de Noël le 10 décembre prochain de 10h à 18h30 :

Exposition de stands producteurs et artisans locaux.

Restauration sur place le midi. Taloa et gâteau basque

Divers ateliers participatifs :

Création de porte clef babouche avec Dam é Drôles.

Calligraphie pour enfants et adultes avec Isabelle Karas.

Atelier coiffure avec possibilité sur rendez-vous de couper les cheveux sur place.

14h-16h Découvre les jeux avec la participation l'Association Adin Goxoa.

19h30 Retraite aux flambeaux sur Karrika avec la participation du groupe de danse Alaiki de Souraide.

20h-21h Spectacle de danse à la salle Elkartetxea avec le groupe de danse Alaiki de Souraide.

-Restauration sur place. Taloa et gâteau basque.

Bourriche avec de nombreux lots des participants de la journée.

Eguberriko merkatua

Elorri elkarteak Ainhoako eskulangileak biltzen ditu eta eguberriko merkatua antolatuko du heldu den abenduaren 10ean, 10:00etatik 18:30era:

Tokiko eskulangile eta ekoizleen erakusgunea.

Bertan jateko aukera eguerditan. Taloa eta euskal bixkotxa

Parte hartzeko zenbait lantegi:

Babutxa itxurako giltzatakoko egitea *Dam é Drôles* espartin-egileekin.

Kaligrafia haur eta helduentzat, Isabelle Karas-ekin.

Ileapainketa lantegia, hitzordua hartuz gero ileak bertan mozteko aukerarekin.

14:00–16:00 Jokoak ezagut itzazu Adin Goxoa elkartearekin.

19:30 Tortxen ibilaldia Karrikan, Zuraideko Alaiki dantza taldearekin.

20:00-21:00 Dantza ikuskizuna Elkartetxean, Zuraideko Alaiki dantza taldearekin.

- Bertan jateko aukera. Taloa eta euskal bixkotxa.

Zozketa, egunean parte hartu duten sari anitzekin.

Centenaires :

Vraiment, il fait bon vivre à Ainhoa.... La preuve ! Nous avons la joie de recenser parmi les Ainhoars deux nouveaux centenaires. Félicitations à Monsieur Mieczyslaw Jan Haladus né le 2 décembre 1922 et à Monsieur François BAPTISTE né le 18 décembre 1922.

Ehun urtetik gorakoak:

Zinez goxoki bizi gara Ainhoan... Horra froga! Ainhoarren artean, ehun urtetik gorako bi pertsona ditugu. Zorionak Mieczyslaw Jan Haladus jaunari, 1922ko abenduaren 2an sortuari, eta Franxoa BAPTISTE jaunari, 1922ko abenduaren 18an sortu zenari.

BON NOEL A TOUS ~ EGUBERRI ON DENERI